

Kontratu ereduak

Webgunean bi kontratu mota daude eskuragarri (Itxia eta Irekia):

- **Itxia:** kontratua idatzita dago, ez dauka azalpenik eta bete besterik ez da egin behar. Kontratua modu egokian betetzeko, 1. ataleko jarraibideak irakurri behar dira.
- **Irekia:** kontratuan zehaztapenak edo aldaketak egin nahi dituzten pertsonen zuzendua dago. Bertan, eta koloreak baliatuz, kontratuan legez egon behar duten puntuak zehazten dira, eta puntu bakoitzean azalpen juridikoak ematen dira. 1. eta 2. ataletan azaltzen da kontratu mota hau nola bete.

1. Kontratua betetzeko jarraibideak

Kontratuan, zenbait testu zati kolorez azpimarratuta agertzen dira:

- Orlegiz dagoena → interesdunek bete beharreko datuak dira.
- Urdinez dagoena → interesdunek aukera bat edo beste hautatu behar dute.

Behin testu zatiak osatu eta hautatu ostean, horiei kolorea kendu beharko litzaieke.

- I. puntua.
 - Lursailen kokapena, azalera eta erreferentzia adierazteko unean, alokatzen den lursail bakoitzeko datu horiek bete behar dira. Horretarako, marratxo adierazitako esaldia bete behar da. Behar adina aldiz errepikatu daiteke.
 - Kortxete artean dauden hiru aukeretako bat aukeratu behar da; eta beste biak ezabatu. *Adibidez: [jabea, gozamenduna edo titularra] → jabea.*
- 1. klausula. Objektua

Kortxete artean dauden hiru aukeretako bat aukeratu behar da; eta beste biak ezabatu. *Adibidez: [Nekazaritza, abeltzaintza eta/edo basogintza] → nekazaritza.*
- 4. klausula. Errenta

“A” edo “B” aukeren artean bakarra hautatu behar da; eta hautatzen ez dena ezabatu egin beharko da.

Alokairua hautatuz gero, “A” aukera hautatu beharko da; eta “B” aukera ezabatu. Kontratua lursaila garbi mantentzearen nahiz hobetzearen truke egin nahi izanez gero, “B” aukera hautatu beharko da; eta “A” aukera ezabatu.

“A” eta “B” hizkiak ere ezabatu.
- 7. klausulako 2. puntua. Errentariaren konturako obrak eta gastuak.

“A” edo “B” aukeren artean bakarra hautatu behar da; eta hautatzen ez dena ezabatu egin beharko da. “A” eta “B” hizkiak ere ezabatu.

- 8. klausula. Hobekuntzak etxebizitza-eraikinetan
Soilik etxebizitzarik badago jarriko da; bestela, paragrafo osoa ezabatu beharko da.
- 11. klausula. Errentamenduaren amaiera
 - Errentaria pertsona fisikoa bada, e) puntua utzi eta f) puntua ezabatu beharko da.
 - Errentaria pertsona juridikoa edo ondasun-erkidegoa bada, f) puntua utzi eta e) puntua ezabatu beharko da.
 - Horiz dagoen azalpen esaldia ere ezabatu behar da.
- 12. klausula. Nekazaritza Politika Bateratuko (NPB) eskubideen lagapena
“A” edo “B” aukeren artean bakarra hautatu behar da; eta hautatzen ez dena ezabatu egin beharko da. NPB eskubideak laga nahi izanez gero, “A” aukera hautatu beharko da; eta “B” aukera ezabatu. Eskubideak laga nahi ez izanez gero, “B” aukera hautatu beharko da; eta “A” aukera ezabatu. “A” eta “B” hizkiak ere ezabatu.
- 14. klausula. Bermea
“A” edo “B” aukeren artean bakarra hautatu behar da; eta hautatzen ez dena ezabatu egin beharko da. Bermea jarri nahi izanez gero, “A” aukera hautatu beharko da; eta “B” aukera ezabatu. Bermerik ezarri nahi ez bada, “B” aukera hautatu beharko da; eta “A” aukera ezabatu. “A” eta “B” hizkiak ere ezabatu.
- I. eranskina
Eranskinean, alokatu edo utzitako lursail denak zein ustiatzean dauden ondasun guztiak adierazi behar dira.
Eranskin hau osatuko duten orrialdeak bi aldeek sinatu beharko dituzte. Nahi izanez gero, argazkiak ere gehitu daitezke.

2. Kontratu irekiaren azalpen gehigarriak

Kolore gorriz adierazten da derrigorrez kontratuan azaldu beharreko informazioa. Esaldi horiek ezin dira aldatu. Beltzez dagoena, aldiz, aldeek erabaki dezakete.

Oin-oharretan azalpen gehigarriak ematen dira, legeak esaten duena azalduz. Kontratuan zerbait aldatu nahi izanez gero garrantzitsua da horiek irakurtzea.